

## Udaleko sototik

## Lurraren prezioa

**d**onostiako Udalak lursailak erosten darrai Altzan, epe ertainera babes ofizialeko etxebizitzak egiteko. Ziur asko, gehiago egin beharko luke, baina hala ere, gaur egun azken urteetan baino gehiago egi-ten ari da.

Garai batean Donostiako etxebizit-zen salneurrien kontrako borroka irabazi egingo zela sinetsita geunden. Dena dela, aspaldi utzi genuen bazterrean uste hori. Orain garaipen txikiak lortzeko itxaropena besterik ez dugu, milaka lagunek, beste herri batzuetara joan gabe, etxebizitza duina lortzeko aukera izan dezaten.

Udala Auditx Akularren erosten ari denarekin, 800 bat etxebizitzez osatu-tako auzo berria eraikiko da. Auzo berria babes ofizialeko etxebizitza eskaintza bakoitzak -zozketa eta eskaera bidez-, agerian uzten duen arazoari arnasa ematera dator.

Duela urte batzuetatik hona, oposi-zioak, eta batez ere Herri Batasunak, udal arduradunei legea bete dezaten



Argazkia: Imbril Otegi

eskatu die, udal aurrekontuaren zati bat zorua erostera derrigortzen duen legea, hain zuzen. Udal arduradunak, orduan, legearen balizko irakurketez baliatzen izan dira.

Gaur egun, ordea, Udala josta-ke ari omen da lanean, hauteskunde

eta gobernu programetan hainbestetan azaldutako asmoa gauzatzeko.

Eskaera honen aurrean etxebizitza pro-motoreak ez dira dar-darrez hasi eraba-ki honekin, baina ziur donostiar askok mezua jaso dutela. Zain egon eta zortea izatea da orain kontua.

Udalak babes ofizialeko 800 etxebizitza eraikiko ditu Auditx Akularren. Zozketan bertako etxe bat suertatzea donostiar askoren ametsa da.

## ● SOTOTIK TXULORA

## ■ Zirku gehiago

Zirku Amerikarrak datorren astean utziko du hiria, egonal-dia zenbait egunez luzatu ondoren. Dena den, munduko ikuski-zunik handienak bisita egingo digu berriro. Izan ere, urte amaie-ran Haurren Hiriaren Zirkua Anoetako belodromora etortzea aurreikusita dago. Zirkukoek urtea agurtuko dute Donostian.

## ■ Aldaketak EHn

Euskal Herritarrok-eko zinegotzi taldeak beste aldaketa bat egiteko asmoa du. Joseba Permach, egungo bozeramailea, zine-gotzi lana utzi eta buru-belarri ariko da Herri Batasunaren Mahai Nazionallean. Permachen tokia Iñigo Baldak hartuko du. Balda zinegotzia izan zen joan den legealdian ere.

# El Andorrano

1860tik zurekin

Alkandorak • Lentzeria

Garibai, 11 • DONOSTIA - Tfnoa.: (943) 420607

# JUANTXO

taberna

**BOKATAK ETA PINTXO EDERRAK!!**

ENBELTRAN KALEA • PARTE ZAHARRA • Tfnoa.: (943) 42.74.05